



## Fran Garciak irabazi du jubenil mailako XII. Gipuzkoa Klasika

**TOLOSA ▶** Jose Carlos Lara eta Jose Manuel Gutierrez izan dira bigarren eta hirugarren

**ESKUALDEKOAK ▶** Eskualdeko lehen Hasier Olea tolosarra izan da, laugarren postuan ▶ 7



Klasikako irabazleak: lehen postuan Garcia, bigarren Lara eta hirugarren Gutierrez. n. u.

**TOLOSA ▶**

Gaztetxe Martxak Tolosaldea zeharkatuko du etzi bizikletaz. ▶ 6



ESTI EZEIZA

## Karta jokoein ekin diote Olinpiada Txikiari

**IBARRA ▶** Gaur token eta boloetan ariko dira Emeterio Arrese plazan, 11:30ean; datorren asteburuan jarraituko dute ekitaldiek ▶ 6

**TOLOSA ▶**

## Bedaioako errota martxan berriro ere

Asteburu kulturalaren harira, gaur Azkaratetik ibilaldia eta afaria ▶ 6



**BAILARAKO  
ESKAINZARIK  
ZABALENA**

**ORIXE** Bigarren Hezkuntzako Institutua

**BATXILERGOA**

Teknologia  
Natura eta Osasun Zientziak  
Gizarte eta Giza Zientziak

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**

Natura ingurune ko kirol  
ekintzen gidaritza

**943 65 13 87**

E-mail: 012980aa@hezkuntza.net [www.orixe.net](http://www.orixe.net)

Aurrematrikula: Batxilergoa: apirilaren 25etik maiatzaren 6ra / Erdi mailako zikloa: Ekainaren 1etik 8ra



## ESANAK ▶



**ARMANDO ROCA**  
ATLETA ETA ARKITEKTOA

«Ilusio mundu batean bizi naiz ni. Ilusioa dagoen bizitzako puntuetara joatea gustatzen zait. Eta ez kirol arloan soilik. Ilusioa duen jendea biziki atsegin dut»

«71 urte, bai. Baina ez dut pentsatzen adin zehatz bat dudarik. Ilusioak eta bizitzeko gogoak gidatzen naute. Buruak gorputza menperatzen duela sinisten duten horietakoa naiz»

«Arkitektura aldetik ondo ikusten dut Tolosa, batez ere San Frantzisko eta Laskorain ingurua. Usabal? Denetik du; gutxi izango dira horrelakoak. Tolosa eraberritu da»

*'TLS' (2006ko apirila)*

## DATUA ▶

# 950

**saltoki inguru daude Tolosaldean.** Egun, 2.100 lanpostu sortzen dituzten 950 saltoki inguru daude Tolosaldean. Hauetako gehienak bikizkariak dira. %22 elikadura, edari eta tabako sektoretan aritzen da. Beste %19 ehun eta oinetakoetan. %11,3 altzari eta ebeko sektorean, eta %10,4 mistoa da, bat baino gehiago hartzen ditu. Gainontzeko %4,6 drogeria, lurrin-denda eta botikak dira.

## RAKEL ALZATE ▶ KOMIKIGILEA ETA MARRAZKILARIA

## «Oso zaila da hemen komikigintzatik bizitzea»

**Oihana Elduaian - Berria** ▶ Marritzia du adierazpide Rakel Alzatek. Marrazkigintzan eta komigintzan aritzen da. Hala ere, horretatik bizi ahal izateko kanporako lanak egin behar izaten ditu. Apirilaren 28tik ekainaren 9ra bitartean komigintzako ikastaroa emango du Rakel Alzatek Tolosako Kultur Etxean. Tolosako Berdintasunerako Departamentuak eta Gazteria Departamentuak antolatutako ikastaro honetan, Dani Maiz Euskal Herriko marrazkigileen elkarteko lehendakaria izango du lagun. Marrazki ikastaroak eman izan ditu, baina komiki ikastaroa ematen duen aurreneko aldia da hau.

### Zer ikasiko dute komiki ikastarora joaten direnek?

Dani Maiz eta biok narratzen erakusten saiatuko gara, batik bat. Narratzen ikasteko hastapena erakutsiko dugu. Izan ere, nire iritzian horixe da garrantzitsua marrazkiekin narratzen ikasteko. Horretaz gain, hainbat estilo ikusiko dituzte, eta teknikarekin apur bat disfrutatzen ikas dezaten nahi dugu.

### Komikiak egiten hasi aurretik marrazkiak ere egin izan dituzuk. Bietako zein alorretan sentitzen zara erosoago?

Egia esan, biak egitea gustatzen zait. Komikia eraginkorragoa da, eta gehiago exijitzen du. Gainera, gidoi on bat eduki beharra duzu, komiki ona egitea nahi baduzu. Ni, esate baterako, ez naiz gidoigilea, beste norbaitek egindako gidoiekin lan egitea gustatzen zait, eta beraz, talde lana egitea bezala da. Nik istorio motzetako gidoiak-eta egiten ditut, baina luzeagoak lantzen ez naiz ausartzen. Beraz, lan mardulagoak egiten ditudanean, besteen gidoiekin aritzen naiz. Hala, gidoigilearekin elkarlana egin behar dut. Bestalde, marrazkiak egitean, neure erara ibiltzen naiz, askeago, lasaiago. Nolanahi ere, nik, biak ditut gustuko.

### Normalean magia, fantasia, mitologia eta antzeko gaiekin lotutako lanak egiten dituzu. Zergatik?

Mundu hori gustuko dut, egia esan. Ez da gustuko dudana arlo bakarra, baina... Mitologiako serie bat egin nuen, aspaldi, eta badakizu, gauza bat egiten hasten zara, lan horretatik ezagutzen zaituzte, eta normalean antzeko lanerako deitzen dizute. Azkenean gai antzekoetan



HITZA

## KOMIKIA

«Eraginkorragoa da komikia, eta gehiago exijitzen du. Gainera, gidoi on bat eduki beharra duzu»

ari naiz. Baina, beno, ez da gustatzen zaidan gai bakarra.  
**Orain zertan ari zara?** Frantziarako album bat prestatzen ari naiz. Dena ondo baldin badoa, urtebete pasatxora argitaratuko da. 46 orriko serie bat izango da, frantsesez. Hori ere gai mitologikoekin-eta lotuta dago.

## MARRAZKIA

«Marrazkiak egiterakoan, neure erara ibiltzen naiz, askeago, lasaiago»

**Hemendik kanpora lanera jotatea beharrezkoa al da lan horretatik bizitzeko?** Hemengo jende askok egiten dugu lana Frantzian. Hemen oso zaila da honetatik bizitzea. Zorte handiko bakarren batzuk badaude, baina ez da ohikoena.  
**Zer moduz ikusten duzu komi-**

## ZALETASUNA

«Euskal Herrian komikizale gutxi daude. Hala ere, egia esan, daudenak oso fidelak dira»

**kigintzaren egoera Euskal Herrian?** Ikastolen Elkarte Xabiroi argitaratzen hasi da orain, eta horrek zabalkunde nahiko handia du. Espero dut horrek zaleak sortzeko balioko duela. Izan ere, hemen zale gutxi daude. Hala ere, egia esan, daudenak oso fidelak dira.

UZTURRETIK ▶ AGUSTIN AMIANO

H baten inguruan



**A**rkauteko akademian D ereduari matrikulatu izan banintz, ez nuen ederki emango. «Txikiagia haizelako, kalamidadea». Ganbarako leiho kaxkarrena duen txokoa izango zen nire gela eta eskilarak igotzen bakarrik, nahiko

ariketa egiteko aukera izango nuen. Ar-bela lurrean aurkituko nuen, inoiz zintzilikatua egon gabeko itxuraz, gainera; mahaian ez zen hautsik faltako eta auklikian bizpahiru txintxeta norbaiten garraisia entzun zain. Dena den, gela pribilegiatuen izango zen gurea: hain ikasle gutxi dituen taldean gehiago jasotzen baita. «Hik ez huen asko ikasiko, halere». Eta herri baten zerbitzurako ahaleginak egin behar ditugula adierazko zigun maisuak. Herri bati leial izatearren, herritarrekin

jator saiatu beharko nuela ziurtatu, ondoren; entzun eta hitz egin, herria zaindu. Hitz egin? Zein hizkuntzatan? Horrenbeste urte «ertzaina» hitzari H falta zaiola pentsatuz eta orain gutxi arte ez naiz konaturatu bere jatorriaz: erdara+zain=ertzain. Noski, Euskaltzaindiakoa telebisitan motoz agertzen bada, erdaraizana errepedean kotxez. Lasai asko, gainera. Ezta «ikasten ari naiz»-ik ere. Amaieran «agur» esan eta kitto. «Bai, hi ez haiz gaztelera itxuraz egiteko gauza eta». Eza-

gutza eta erabilera zein mailatan dituzten jakingo nuke gustura. Beti errepikatu behar dituen hitzak euskaraz esateko gai ez bada, agiri guztiak gure hizkuntzan jaso ahal izango dituen ueña lekutan dago. Hautsak kendu behar zaizkio gela horri, ondo kendu ere.

Azken isipua: hizkuntzetako arauetan ohikoa den bezala, hemen ere badira salbuespenak. Neronek ezagutzen ditut euskara jatorrean hitz egiten duten bi edo hiru ertzain. Egon, egon! «Hiru» hitzak H dauka, beraz, ez dira horrenbeste izango; bi izango dira ezagutzen ditudan guztiak. «Hi ere ez ezagutzeko hobe haiz». Gutxitxo, ezta?

TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

ETAren su-eten iraukorra dela-eta bake prozesua gertuago ikusten al duzu? Zer aldatuko da orain?

Ni «demokraziaren semea» omen naiz, eta oraindik ez dut herri puta hau bakean ezagutu. Guk ez omen genituen «bonbak» eta «pistolak» ezagutu behar... ez eta errepresioa eta torturak ere... En fin! Bake prozesua gertuago ikusi ez, hasiera ikusi dugu jada, hau lehen urratsa izan da. Espainiako Gobernuak ez dut uste erantzun egokia emango dionik, ondoregi geratu nahi dute *espainiarrekin*, eta bizi honetan ezin da denekin ongi geratu. Baina erantzun egokia ematea euskal herritarren eginkizuna da, horrelako aukera bat mahai gainean jarri eta ez badugu aprobetxatzen jakiten, inoiz ezingo genioke geure buruari barkatu. Gure seme-alabek ez dezaten jasan guk jasandakoa. Meta ditzagun indarrak eta jo dezagun independentziara! Zer aldatuko den asmatzea zaila da, baina PNV-EA-IU-PSeren jarrerak aldatu beharko du lehenbailehen, eta preso politikokoekiko gorroto eta mende-

kuzko jarrera ere bai. Dispersioarekin amaitu. 79an bezala, Amnistia Osoa!

**GAZTE ▶**  
«ERANTZUKIZUN GUZTIA DU ESPAINIAKO GOBERNUAK»

Esperantza esaten dute... Putre gehiegi daude hemengo egoeratik bizi direnak, eta ez dut uste beraiek eskua okertzera emango dutenik. Beti berdinek ematen dute pausoa. 1.000 egun heriotzik gabe? Presoak, gurasoak, lagunak... Horiek ez dira heriotzak? Bufffff... Ikusiko dugu herri honek baduen behar duena prozesu hau babestu eta bere iritzia azaltzeko betikoen esku utzi gabe... Gora Herria!

**MENDIKO IPOTX ▶**  
«ERRESPONSABILITATEA»

Nola gertuago? Bake prozesua hemen dago jada. ETAK erabaki du noiz hasten den eta berak erabaki dezake noiz bukatu. Orain benetako gerra alderdi politikoetako putreen artean hasiko da: nik hau nahi dut eta niri ez beste hori kendu. Eta horrela: noiz arte? Madarikatuak!!

**MIELOTXIN ▶** «BAKE PROZESUA GERTUAGO?»

Prozesu politikoa, euskal jendartearen hitza errespetatu beharko duen prozesua ondo bideratzeko denok eman behar dugu zerbait, eta politikariengan presionatu, argi baitago PNV bezalako alderdiek botoei eta botereari begiratzen

diela soilik, hauei berdin zaien Euskal Herria eta bakea. Espainiako Gobernuak aurrerapausoak ematen hasi beharko du, beren legea betez, presoak Euskal Herrira ekarri, aukera politiko guztiak legezatzuz... eta ETArekin negoziatuz. Baina garbi eduki beharko du Espainiako Gobernuak Euskal Herriko mahaian hartzen diren erabakiak errespetatu beharko dituela, eta euskal jendartearen hitza errespetatu, guk erabaki behar dugu espainol eta frantzes izaten jarraitu nahi dugun edo euskal herritar soilik. Animo guztioi eta aurrera!

**ITOITZ ▶** «DENON ARDURA»

Ni itxaropentsu naiz. Edo itxaropentsu izan nahi dut, behintzat. Eta arduratsu izan behar dugula ere uste dut. Aurrean dugun aukera ezin dugu pasatzen utzi. Ez delako beharbada horrelako besterik izango. Arduratsu izan behar dugu guk, eta ardura eskatu ere alderdiei. Konfiantza dut prozesuan, baina ez politikariengan. Espainiako Gobernuarengan are gutxiago. Herriarengan bai, ordea. Gu gara presio hori egin behar dugunak, eskutik heldu eta aurrera egin behar dugunak. Animo, hau hasi besterik ez dela egin!

**AUKERA ▶** «KONFIANTZA HERRIAREN»

Pozez hartu nuen su-eten iraukorren berria. Ilusioz. Baina baita zuhurtziaz ere. Eta ez ETarengatik. Politikari ba-

tzuegatik baizik. Espainiako Gobernuak, PP, EAJ... Aitzakiarik ba al dago orain? Orain arte indarkeria, armak ziren elkarriketa guztien lelo, azalpen, aitzaki. Baina orain indarkeria desagertu dela, zein izango da aitzakia aurrera egiteko? Gauzak hitz egiteko? Adosteko? Konfiantza izan nahi dut zuengan, politikariengan, baina zaila jartzen didazue beti... Aldamenekoaren akatsei baino norberaren ardurei erreparatzen ikusi nahi zaituztet behingoz. Herri honek hori gutxienez merezi du, ezta? Oraindik ez dut herri hau bakean ezagutu, eta Euskal Herriak merezi du.

**ZUHURTZIA ▶** «ZER AITZAKI BEHAR DUTE ORAIN?»

Orain ere emakumeak aitzindari... Ahotsak ekimenen bezala elkartu beharko genuke guztiok, ideologia askotakoak, herri hau pixkanaka aurrera ateratzeko... Zorionak zuei, emakumeak!

**ZUTIK ▶**

Gustatzen ari zait Eusko Alkartasunaren jarrera, nahiko baliante ikusten ditut. Baina hauteskundeak gerturatzen diren heinean ere hala jarraituko al du? Gustatuko litzaidake baietz...

→

Hau dena soluzionatuko da euskal herritarren hitz errespetatzen denean. Euskal Herriari erabakitze eskubidea

aitortzen zaionean, zor zaiona ematen zaionean. Autodeterminazioa orain!

→

Autodeterminazioa? Zuk uste ezazu noizbait gure etorkizuna erabakitzen utziko digutela? Zor diguten eskubidea emango digutela? Ni gero eta ilunago ikusten ditut gauzak... Gai-nera, uste dut hori ezin dela *moneda de cambio* edo dena delako bezala erabili.

→

Eta euskal presoak Euskal Herriari noiz? Hori ere baldintzen artean egon behar al du? Hori ez da baldintza, hori ere zor digute! Nahikoa da!

**ETXERA ▶** «EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA»

Ba, niri ez zait iruditzen eskubide hori sekula emango digutenean... Hemen garbi dago nork jartzen duen gehiago bere aldetik beti, eta nork ez duen bere oraingo estatusa galdu nahi. Euskal presoak Euskal Herriratzea ez dute negoziatuz gertatu sartuko ez PPK ez eta PSOEk ere. Eta PNVk ere ez du bere exijentzien barruan sartuko. Ez zaio komeni, ez baitu gaizki gelditu nahi Espainiakoekin. Baina noren alde egin behar du? Herriaren alde, noski! Ez al du ikusten behingoz garaia dela herriaren hitza entzuteko eta errespetatzeko? Ardurari gehiago, mesedez. Eta hipotesia gutxiago.

→

iragarki laburrak ▶

**LANPOSTUAK**

**Laborategiak.** Hurrengo deialdiak teknikoak, unibertsitate laguntzaileak, ospitaleak. 943 31 37 82.  
**Mantentze-lanak.** Mekanikariak, gidariak. Hurrengo deialdiak udaleku eta Foru Aldundiarentzako.

Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Elbarrituak.** Hurrengo deialdiak Foru Aldundiarentzako.

Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak** behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra

zaintzaileak, gidariak, haurtzaindegiko hezitzaileak, basozainak, garbitzaileak. 943 31 37 82.

**Administrari laguntzaileak.** Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalek administrari

laguntzaile lanpostuak bete behar dituzte. Hilean 1.500 euro. Doako informazioa. 943 31 37 82.

**Gidariak.** Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak. Kontratu mugagabeak. 943 31 37 82.

**Garbitzaileak.** Lanpostu finkoak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informa zaitez: 943 31 37 82.  
**Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak.** Postu libreak Eusko Jaurilaritza. Asteburuetan libre. 943 31 37 82.

IGERIKETA ▶

# Tolosaldea Igeriketa Taldea «bikain» Euskal Herriko Taldekako Txapelketan

Mutilen taldeak lehenengo postua lortu zuen eta neskenak bigarren; Eneka Muñagorri eta Itziar Oteizak denbora berriak ezarri zituzten

honetan egituko, 100.000 biztanletik gorako hirien kontrako lehiari garaile suertatu baita.

Euskaldekotaldean ondorengo igerilariek hartu zuten parte: Inaki Carrera, David Rodriguez, Endika Arandia, Ion Igaitea, Josu Carrera, Nestor Etxart, Ignacio Malkorra, Jokin Otasegi, Iñaki Muñoz eta Itziar Prada mutilenak, Alala Gorostidi, Joana Cuadrado, Itziar Oteiza, Saioa Aliri, Leire Muñagorri, Lila Alonso, Ainhoa Oñasalo eta Eneka Muñagorri, neskenak.

Tolosaldea IKTxo ordezkariak azaldu bezala, goizeko eta arratsaldeko errelebo «zuztegarrietan» egituko lana ezinbestekoa izan zen, «erakustialako maila oso ona izan zen bai nesketan bai eta mutiletan ere, eta hori izan zen saria eskuratu izanaren arrazoietaiko bat».

«Gainera, mutilen taldean baxa garrantzitsua izanda ere sari nagusia eskuratu genuen, eta hori oso garrantzitsua da izan da».

Bestalde, Eneka Muñagorri eta Itziar Oteizak egituko denborak azpimarratu behar dira; lehenengoaren kasuan, 100 libretan eta 400 estilotan Espainiako markak hobetzea lortu zuen. Oteizaren kasuan, berriz, 100 bizkarrean egituko denborarekin, Espainiako marka be-

ERREDAKZIOA

Emaitza «ezin hobekoa» lortu berri dituzte Tolosaldea IKTx igeriketa taldekoek Zarautzen, Iñantzi mullako Euskal Herriko Taldekako Kopan. Izan ere, parte hartu zuten igerilari ia guztiak beraien marka onenak hobetzea lortu zuten, «garrantziko motibazioa eta gopoa» erakutsiz. Entrenatzaileen esanetan, «ineguzko zehar egindako lana asperran geratu da, igerilariak orain arte izandako txapelketa garrantzitsuenenak».

Alderi sailkapenean, mutilen txapelketa Tolosaldea izan zen, eta nesketan, berriz, bigarren postuan geratu ziren Tolosaldekoak. Beraiek taldearen atzetik. Alpatzekoa, beraz, Tolosaldeko taldeek txapelketa

ULERTZEKO GARAI BERRIA

berria<sup>2</sup>

**TOLOSALDEA, LASKORAIN IKASTOLA, ZEURE AUKERA.**

- Kalitateko heziketa eskualduna.
- Tolosaldeko gazteen
- Bigarren Hezkuntzarako ikastola.
- Unibertsitateko zein Lanbide Heziketarako bide guztiak irekiko dizkizun ikastola.

**Batzilergo eskaintza zahala duelako:**

- Zientzia eta Teknologia
- Naturaren eta Osasunaren Zientziak
- Giza eta Gizarte Zientziak

**Izena emateko epea:** apirilaren 24tik maiatzaren 3era bitartean ikastetxeko ikazkariaren Udalak Auzoa 26  
**Ondutegia:** 8:30 eta 18:00 etara  
**Argibide gehiago:** Tel.: 943 69 71 22 edo [www.laskorainkastola.net](http://www.laskorainkastola.net)

**Donatike b.h. institutua**

**BATZILERGO FOMATIBOIA**  
 (Zuzen Ikasteko Heziketa Zibiletako Inbentarioa)

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- Merkataritza: 2000 ordu
- Landa enpresetako eta nekazaritza enpresetako: 2000 ordu
- Natur ingurumenaren gogortze eta landa enpresen gogortze: 1600 ordu (bateratuta)

**HATIBILIA EPEA: APRILAK 24-HAHIATZAK 7**

**Informazioa:** tel.: 94 0762 110 / [www.onati.net](http://www.onati.net) / [cmi@buh@donatikea.net](mailto:cmi@buh@donatikea.net)

**BATZILERGO FOMATIBOIA**  
 (Zuzen Ikasteko Heziketa Zibiletako Inbentarioa)

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- Merkataritza: 2000 ordu
- Landa enpresetako eta nekazaritza enpresetako: 2000 ordu
- Natur ingurumenaren gogortze eta landa enpresen gogortze: 1600 ordu (bateratuta)

DATUAK ▶

SAILKAPENA

Neskek:

1. Barakaldo
2. Tolosaldea
3. Bidasoa (Burl)

Mutilak:

1. Tolosaldea
2. Bidasoa (Gastel)
3. Fadura (Geko)

MARKA NABARMENAK

- 100 libretan: 1'03"62.
  - 400 estilotan: 5'29"57.
- Izlar Oteiza**
- 100 bizkarrean: 1'11"36.



Tolosaldea IKTx igeriketa taldeko igerilariak Zarautzen izandako txapelketan emaitza «ezin hobekoa» lortu zituzten. «w»

ANOETA ▶

Herriko artisten erakusketan antolatzeko bilera

Urtero bezala, Anoetako festetan erakusketak bai antolatzeko herriarrek egiten dituzten mola desberdinetako eskularrak iruzgari jarri nahi ditu Udalak. Beraz, euren lanak erakutsi nahi dituztenekin bilera bat egingo da, honetaz hitz egingeko. Bilurua hilaren 26an, arratsaldeko 18:00etan Udaletxean izango da.

TOLOSA ▶

Habian dira Kzguneko maizteko eskolak

Kzguneko maizteko ikastaroak martxan dira. Gai horietan ez bezala, 20 ordutako kurtsoak antolatzen dituzte. Hauetan, interneten ibiltzen, informazioa bilatzen eta posta elektronikoa martxan erabiltzen da. Eskolak, maiatzaren 8tik 19ra bitartean izango dira, 09:00etatik 11:00etara edo 16:00etik 18:00etara.

**Zeuzara Gipuzkoaren motorra**

**902 100 040**

**Gipuzkoako Foru Aldundia**



TOLOSA ▶ GIZARTEA

# «Guztiok bizikletaz» Gaztetxeen alde egingo den martxan

Ostiralean, Maulen hasi zen Gaztetxe Martxa, etzi igaroko da eskualdetik, eta maitzaren 7an Iruñean amaituko da



Herenegun, Bonberenean egindako Gaztetxe Martxaren aurkezpeneko une bat. E. EZEIZA

## ESTI EZEIZA

Herenegun, Mauletik abiatu ondoren, 16 egunetan, Euskal Herri osoko ehundik gora gaztetxe hartuko dute parte udaberri honetako Gaztetxe Martxan. Helmugatzat Iruña hartuta, Tolosaldeko ere igaroko da ibilaldia. Honela, herenegun, Bonberenean aurkeztu zuten ekitaldia eskualdeko Gaztetxe eta Gazte Asanbladek. Hauen esanetan, martxa hau beraien aldarrikapenak kalera ateratzeko aprobetxatuko dute, «be-

reziki Gaztetxeen beharra aldarrikatzeko». Honen haritik, salatu nahi dute «oraindik, alternatiba egokirik eskaini gabe, dagoeneko abian dauden Villabonako eta Tolosako Bonberenea Gaztetxea botatzeko proiektuak».

Etzi bizikletaz Tolosaldea zeharkatuko dute. Hori dela eta, «Tolosaldeko gazte guztiak bizikleta hartuzera gonbidatuta daude, Gaztetxeen defentsan». 18:30ak aldera, Sanblaseko gazte lokalean, ongiatorria egingo diote martxari. Hemenetik Ibarrara joango dira, eta bertan, Gaztetxe Martxako murala marraztuko dute. Hau amaitu ondoren, Tolosako Triangulora zuzenduko dira. Bonberenea Txarangarekin eta Mulambo perkusio taldearekin elkartu eta Anoetarantz

## GAZTETXE MARTXA ▶

### TOLOSALDEAN

**Eguna.** Etzi, hilak 25.  
**Ordua.** 18:30ean abiatuta.  
**Nondik.** Sanblaseko gazte lokaletik.  
**Norabidea.** Sanblasetik; Ibarrara, ondoren Tolosara; gero, Anoetatik Villabona eta Zizurkilera. Eta azkenik, Andoainera.

kalejiran joateko. Hara iritsita-koan, Abiadura handiko Trenaren aurkako ekitaldia burutuko dute, eta Villabonara abiatuko dira. Bertan, parodia bat eta Gaztetxeari buruzko proiektio bat ikusi ahal izango dute. Azkenik, egunari amaiera emateko, lehendabizi Zizurkilera eta ondoren Andoainera hurbilduko dira bizikletaz. Hala ere, martxa ez da hemen amaituko, maitzaren 7arte Euskal Herria zeharkatzen jarraituko baitu, Iruñera heldu arte. Egun horretarako autobus bereziak ipiniko dituzte Tolosaldeetik.

**Buldain**  
INMOBILIARIA

- Lekunberrin, 2007. urtean eraiki behar diren 44 apartamentu eta etxebizitza salgai.
- Leitzan, eraikuntza berrian, lau logelako, lau etxebizitza salgai. Lokal komertzialak ere bai.
- Leitzan, bigarren eskuko, lau etxebizitza salgai.
- Leitzan, 5350 m<sup>2</sup>tako lur-eremua salgai. Borda egiteko aproposa; 6.200.000 pzta.

**948 51 05 34 • 646 03 59 61**  
Amazabal 37 behea • Leitzan

**Taxi lizentzia  
kotxearekin  
salgai Tolosan  
649 03 52 32**

BEDAIO ▶



Errota zaharraren funtzionamendua azaltzen. E. EZEIZA

## Errota martxan jarri dute, berriro ere

Eguraldia lagun, Bedaioko errota bisitatu zuten atzo herritarrek. Asteburu kulturalaren harira, honen funtzionamendua azaldu, eta ondoren, martxan jarri zuten. Honela, egunari amaiera emateko, bertan egindako hirinarekin, afaltzeko taloak prestatu zituzten. Bestetik, gaur goizean, Azkaratetik barna ibilalditxo bat egingo dute, eta ondoren bazkaria.

TOLOSA ▶

## Vikingo MDren kontzertua bertan behera

Bonberenean, apirileraiko antolatuta zeuden kontzertuen baitan, datorren ostiralean, hilaren 28an, Vikingo MD taldeak eskani behar zuten zuzeneko zegoen. Zerbait arazo direla-eta, ordea, bertan behera geratu dela emanaldi hori adierazi dute Bonbereneako ordezkariak.

OREXA ▶

## Osasunari buruzko hitzaldia herritarrentzat

Herritar guztiei zuzenduta, osasunari buruzko hitzaldiak antolatu dituzte Orexan. Uli Mankomunitateak eta Kutxako ikusgelak sustatuta. Lehenengo jardunaldia astezkenean izango da, arratsaldeko 18:00etan, udal-txeko ganbaran. Landuko den gaia, *Zaintzen duen pertsonaren zaintza* izango da

IBARRA ▶



Eskoba karta jokoan, atzo, Xepla elkartearen. E. EZEIZA

## Atzokoan, karta jokoan zegoen lehia

Olinpiada Txikien barne, Eskoba karta jokoan aritu ziren atzo arratsaldean, Xepla elkartearen. Aldi berean, elkarteetako beste kide batzuk, musean lehiatu ziren Deportiva Elkartearen. Txapelketa honetan, guztira, Ibarrako 12 taldek hartu dute parte. Gaur berri, goizeko 11:00etan, tokan eta boloetan jolastuko dira Emeterio Arrese parkean.

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Autoa.** 4 urteko Seat Toledo TDla. 53.000 kilometro. Urtebeteko garantiarekin. Interesatuek deitu 943 11 77 59 zenbakira.

### GALDUTAKOAK

**Txakurra.** Galgo marraduna. Tola izena du. Gaztea. Azkenekoz Alegian ikusia. Interesatuek deitu 658 70 59 81 zenbakira.

### LANA

**Sukaldaria.** Lekunberriko taberna batean sukaldaria behar da. Interesatuek deitu 948 50 40 05 telefono zenbakira.

TXIRRINDULARITZA ▶

# Fran Garcia garaile, junior mailako XII. Gipuzkoa Klasikan

Azken 200 metroak sei gaztek egin zituzten, horien artean, Hasier Olea tolosarrak, laugarren helmugaratu zena



Sprint-a lehenengo bost txirrindulariek egin zuten: laugarren, Hasier Olea izan zen, irudiko azkena. N. URBIZU

## NEREA URBIZU

Jubenil mailako Gipuzkoako XII. Txirrindularitza Klasika izan zen atzokoan, eta Tolosan kokatuta zegoen helmugako marra lehen igaro zuena, Fran Garcia Murtziako (España) gaztea izan zen.

Jose Carlos Lara Ceutakoa (España) izan zen bigarren, eta hirugarren Jose Manuel Gutierrez Kantabriakoa (España). Eskualdeko lehena 4. pos-

tuan iritsi zen, Hasier Olea tolosarra, Tolosaldea taldekoa. 5., 6. eta 7. postuetan, beste hiru euskaldun; Julen Gonzalez, Beñat Uraín eta Ivan Gil.

Lasterketan ihesi zihozten 9 gazteak, Julen Gonzalez, Fran Garcia, Jose Carlos Lara, Ivan Gil, Hasier Olea, Jose Manuel Gutierrez, Garikoitz Bravo eta Ion Aberasturi, 60. kilometroaz geroztik zeuden tropeletik ihesi. Altzoko 2. igoeran atzean geratu ziren aipatutako azken

biak. Leaburuko jaitsiera 7 minutetik egin zuten, beraz; aurrerago, metro batzuk irabaztea lortu zuen Hasier Olea tolosarrak. Ezin izan zuen, ordea, distantzia hori mantendu eta azkenik sprint-ean garaile argia Fran Garcia izan zen.

Ihesi zihozten taldeko Julen Gonzalez euskaldunak lehenengo kilometroetan bi gurpilak zulatu zituen. Hala eta guztiz ere, tropela harrapatu eta lasterketako buruan bukatu

## SAILKAPENA ▶

### Lasterketako lehenak.

1. Fran Garcia
2. Jose Carlos Lara
3. Jose Manuel Gutierrez
4. Hasier Olea

### Mendiko saria.

Jose Manuel Gutierrez

### Tartekako helmugak.

Daniel Gonzalez

### Taldeko saria.

Euskadi

zuen, lasterketa bikaina burutuz.

17 eta 18 urteko 175 gazte atera ziren —orotara 35 talde—, Tolosako San Franzisko etorbideetik lasterketa egitera. Lizartzara lehenik, ondoren Tolosara berriro bueltatzeko. Handik, Alegiatik barna Goierri sartu ziren. Altzora igo eta Leaburura joan behar izan zuten, Belauntzara jaitsi eta ondoren Ibarra sartuz, Tolosako San Franzisko etorbidean amaitu zuten ibilbidea. Txirrindulariek Altzoko bi igoeretan eta Leaburuko gainera igotzean izan zituzten zailtasun handienak.

Espainiako Koparako puntuagarria den lasterketa «beretza» izan zen atzokoa, eta jubencil mailako txirrindularirik onenak izan ziren eskualdean. Horrexegatik, kataluniarrak eta galiziarrek ere ibiltzea ez zen arraroa izan. Euskal Herriko taldeak ere ibili ziren, Gipuzkoako talde guztiak, hain zuzen ere. Beraz, Belka Oriako eta Oriako ere bertan aritu ziren.

## Handienak bertan ibiliak

Aurreko edizioetan ibilitako partaide batzuk egun, onenen artean daude, izan ere, handien artean ibiltzen diren askok lasterketa hau burutu izan dute. Horien artean Iban Mayo eta Iban Iriondo. Hauek podiumean egotea lortu zuten. Aurtengoan, beraz, Garcia murtziarrak irabazi du, duela 9 urte bere herrikide Valverdek egin zuen moduan.

TOLOSA ▶

## Produktu eta eskaintza zabalagoa atzoko azokan

Ziza eta ondoez gain, babak eta ilarrak izan ziren berrienak eta desiratuenak

PABLO ALBERDI

Atzoko euriak ez zien batere lagundu azokara gerturatu zirenei, eta nahiz eta giro animosoa ikusi kalean, ez zen ahalko lukeen bezain polita izan. Eskaintza aldetik, ordea, berrikuntza eta produktu berri asko izan ziren. Aurtengo lehenengo babak eta ilarrak agertu ziren, 4 eta 12 eurotan salduak: udaberriko izarrak izaten dira.

Interesa sortu zuten ere aurtengo lehenengo zizek eta ondoek. Nahiz eta kilo asko kanpotik ekarriak izan, eskaintzaren prezioa asko jaitsi zen atzo, eta, dirudieenez, aurten oso kopuru polita eskuratuko dugu mendietan.

## AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Porru landarea	2,40	-
Aza kizkurra	6,00	-
Txilarra	3,00	4,30
Geranio hiedra	2,00	-
Salbia	1,00	1,20

## Bertako produktuak

Intxaurra	2,50	4,00
Loloa	1,00	3,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	3,00
Lekak	2,50	12,00
Azalorea	1,00	-

## Produktu ekologikoak

Arroza	1,90	2,00
Erremolaxa	1,60	-
Arrautzak	3,50	-
Kogoihoa	1,00	-
Ahuntz gazta	3,00	-

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guzietan prezio beragatik.

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

## hilberriak eta urteurrenak ▶

**Maria Luisa Pando**  
(Eider Ijurko preso politikoaren amona)

Erraza izan zen zu maitatzea ezinezkoa, ordea, zu ahaztea beti gurekin izango zara

Ibarrara Herri Ekimena

2006eko apirilaren 23a

**GARIKOITZ EZKERGAIN GALARZA**

**Nahiz lagun baten hutsunea den eramateko astuna zure koadrilak ez du ahaztuko ene Ezkergain kuttuna. Maite zenuen mendi magalak eramandako laguna oroitzapenak beteko digu bihotzetako hutsunea**



Harpidedunei banatua ▶ 2006ko apirilaren 23a, igandea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

15

hotzera

12

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** Eider Ijurko Ibarra preso politikoak hilaren 27an betekoa ditu 25 urte. Hori dela-eta etzi, hilaren 25ean, argazkia aterako dute Ibarra Benito Izagirre kultur etxearen kanpoaldean 19:30ean.

**Tolosa.** Sahara Bizi Tolosaldea Sahararekin elkarteak antolatuta, bertso jaialdia 18:00etan, Usabal kirodegian. Txartelak 10 eurotan, Alegiako Iskiñan, Tolosako Xirimirin, Denaken eta Klisk argazki dendan, Ibarra Karlatzen, Arkaitez azpin eta Danon Txokoan, Leaburuko Ostatuan, Ikaztegieta Toki-Alain eta Villabonako Apatxen eta Iru-aldetan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.  
**Tolosa.** Santa Maria I. Nafarroa etorbidea 2. 943 65 46 10.

**Bihar**  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren 36. 112.  
**Tolosa.** Azpiroz M.L. Amaroz auzoa 9. 943 67 51 18.

**IRRATIA**

**Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)**

**Gaur**  
 10:30-13:00. *Hitza hegan* magazina (errepikapena).

**Bihar**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, HITZAren erreposoa, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskaniak...  
 19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
 21:00-22:00. *Argizirin aitaldia*, Xoroxin irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariari adierazitako esanetan eta irizien erantzukizunik.

**ARGAZKI LEHIAKETA ▶**

**BURGOS ▶**

**Ilazki Aldunberri (Tolosa).**

Burgosko (Espania) Hornillos del Camino izeneko herrian ateratako argazki haue aukeratu du tolosar honek III. HITZA Argazki Lehiaketarako: «Hilaren 14an eguerdi partean atera nuen argazkia; herri bixi honetan garai bateko gurdi zahar bat topatu genuen», dio.



**ANETO GAILURRA ▶**

**Egoitz Bengoetxea (Amasa-Villabona).**

Aneto gailurreko azken maldetan ateratako argazkia bidali digu Egoitz Bengoetxeak: «Hilaren 18an egun ederra atera zuen, nahiz eta behelainoa ageri behoko bailarak estaliz; arrastoa irekitzen berotu ederra generaman arren, ederki kostatzen zen gelditu eta argazkia ateratzea egiten zuen hotzarekin».

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**

**Nahia.** Gure sorginboak gaur urtebete. Zorionak eta 2 muxu aitaboren eta amaboren partetik.



**URTE ASKOAN**

**Saioa eta Oihane (Amezket).** Bihar urte bat. Zorionak eta muxu bana, bi sorginbo politenei, ebekoen partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tarte

Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza argazki lehiaketa**

**bidali argazkiak**

**ARGAZKIAK NORA BIDALI**

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

**OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info**

**Sari nagusia**

**BIDAIA paregabe bat zure neurria**

2 laguntzetaz 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan

**Bidaia Agentzia bidaide**

Erniobea, 6-behea • 20150 Villabona  
 Tel.: 943 692 693  
 bidaide@gruposercom.com

**ZOKETA APARTAK**

**PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE** guztien artean HITZAren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira